

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Derbi parekatuan, Hernani garaile

ASTIGARRAGA-HERNANI
SASKIBALOIA

4



Etxeko partidua berdindu, etxetik kanpokoak galdu

ASTIGARRAGA-HERNANI
ESKUBALOIA

5



«Pozez nago, ez baita itsasontzi hau ondoratuko»

HERNANI
GOIZ EGUZKI

8



Astero berriro, duin

Pentsio eta soldata duinak eskatzen jarraitzen dute pentsiodunek, asteleheneroko mobilizazioetan. Ez daude etsitzeko prest, eta hau, «denen borroka» dela gogorarazi dute. Bi urte egin dituzte borrokan, eta behar adina segiko dute. Urtarrilaren 30eko greba deialdiarekin ere bat egin dute.

3

Taldeka aurretik sailkatu da Hernani, hasteko

EREÑOTZU-HERNANI
BOLA

5

AGENDA

GAUR 17:30 : Euskaraldia aurkeztuko da Biterin
HERNANI

GAUR 19:30 : Euskal Zinema Zikloa, hiru egunez
HERNANI



GAUR 19:00 : 'Aitaren etxea' liburuaz, Kattalin Miner
HERNANI

· *Lure konfiantzazko fisioterapia zentroa* ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

• 638 421 060 •



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik, Kattalin Minerrek eskainita

Urte berrian sartuak gara, eta Kattalin Minerrek, 2020rako Emakumeen Euskal Literatura ikuspegi Feministatik mintegia antolatu du eta gaurkoa izango da urte honetako lehenengo saioa, arratsaldeko 19:00etan hasita, Biterin.

HERNANI LITERATURA MINTEGIA


Gaur arratsaldean, literatura mintegia eskainiko du Kattalin Minerrek, Emakumeen Euskal Literatura Ikuspegi Feministatik lelopean.

Hainbat zita jarri ditu ekainera bitartean, guztira sei saio izango dira, eta lehena gaur izango da, arratsaldeko 19:00etan Biteriko Liburutegian.

Gaurko saioan, Aitaren etxea liburuan oinarrituko da, Karmen Jaio egilearena hain zuzen. Datorren zita, otsailaren 18an izango da, arratsaleko 19:00etan Liburutegian, eta Koaderno gorria liburuari buruzkoa izango da, Arrantxa Urretabizkaiarena.

Saioak, ikuspegi feministatik Kattalin Minerrek antolatutako Emakumeen Euskal Literatura saioak, «euskal eta zehazki euskarazako emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko taillerria izango da hau.

Helburua da euskal emakume idazleak ezagutaraztea, eta egun garatzen diren kezka, diskurtso eta porposamenak denen artean hausnartzea eta horiek genero ikuspei eta ikuspegi feminista batetik irakurtzea». Beraz, gaurko saiora bertaratzeko deia luzatu nahi izan du. **K**



Karmele Jaioren Aitaren etxeari buruzko solasaldia izango da gaurkoa.

Odol emaileak behar dira, Inmakuladan

HERNANI ODOL EMAILEAK

Inmakulada Ikastetxean, ikas-kuntza eta zerbitzu proiektu bat egiten ari dira, *Odol emaileen altxoraren bila* izeneko eta odol emaileak behar dituzte. Beraz ostiral honetan, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara bitartean, Inmakulada Ikastetxean, odola emateko gela bat prestatuko dute, eta herritarrei deia luzatu nahi dute «animatu etortzera eta odola ematera». Gaineratu dute, odola ematean, bokatak emango dituztela.

'Han ez banengo bezala', gaurkoan

ASTIGARRAGA IRAKURKETA KLUBA

Gaur arratsaldeko 19:30etan irakurketa kluba eskainiko da, liburutegian. Slavenka Drakulicen, *Han ez banengo bezala* liburuaren inguruko izango da eta Isabel Etxeberriak gidatuko du Saioa.

Gaur aurkeztuko dute Euskaraldia

Gaur arratsaldeko 17:30etan izango da Euskaraldiaren aurkezpena, Biterin, eta 2020ean egingo diren proiektuen berri emango dute.

HERNANI EUSKARALDIA **K**

Urte berriarekin, proiektu berriak datoz, eta haietako bat da Euskaraldia. Gaur arratsaldean eskainiko dute Euskaraldiaren aurkezpena, arratsaldeko 17:30etan, Biterin. Urte honetako asmoak kontatuko dira bertan, 2020eko agenda aurkeztuz. Urte berriko bete beharrak zeintzuk izango diren ere azalduko dituzte. Horrez gain, Euskaraldia

nondik datorren eta Euskara Ari Du taldea nola sortu zuten ere azalduko dute. Elkarrekin kontaktua egingo dute urte honetan zehar, eta guztion artean Euskaraldia egitasmoa prestatzea izango dute helburu nagusi bat. Euskara Ari Du taldekoek azpimarratu dute, «asteko eta hiru hilabeteko erronkak ere izango dira, aurten ere». Hau guztia, gaurko aurkezpenaren entzuteko aukera egongo da. **K**



2018an zehar Euskara Ari Duk gauzatutako erronkez betetako, Baietz Hernanik! liburuaren aurkezpena.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
ISSN-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda eta
J. Zubitur.

Argitaratzailea:

**DO
BE
RA**
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Ereñotzuko
Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM



DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

'Paseko txoriak' filmarekin emango zaio hasiera Zinema Zikloari

Gaur arratsaldeko 19:30etan, Zinema Zikloaren lehenengo filma jarriko dute Biteriko pantailan. Datozen egunetan ere izango da Zinema Zikloa, bihar, etzi eta ostiralean hain zuzen. Biharkoa, 'Ez eskerrik asko! Gladysen Leioa' izango da

HERNANI ZINEMA ZIKLOA

Euskal Zinema Zikloa antolatzen den bigarren deialdia da urte honetakoa, eta helburua da, «gai desberdinen inguruko filmak eskaintzea, guztia euskal ekoizpenak izanik». Gai askotako filmak dira, hala ere, gehien erakutsiko diren pelikulak, gai sozialak lantzen dituen dokumentalak izango dira.

Gaur hasi eta ostiralean amaituko da Zinema Zikloa, beraz, filmak eskaintzarekin batera, egileekin edo eragileekin solasaldia egitea ere sustatzen dute, «gai zehatz baten inguruan gehiago ezagutzeko eta zuzeneko protagonistekin harremanetan jartzeko».

Gaurkoan, 'Paseko txoriak'

Paseko Txoriak izango da aurtengo Zinema Zikloko lehenengo pelikula. Juanmi Gutiérrez da zuzendaria, eta filma euskaraz izango da, gaztelaniazko azpitituluekin.

Ezin muga pasa

2018ko uztailean, Afrikatik ze-

tozen etorkinak, Irungo tren geltokira iristen hasi ziren, Frantziako muga zeharkatu nahian. Herritarrek haien aldeko eskuzabaltasun mugimendua sortu zuten, eta herritarren eta atzerritarren arteko harremanak eta istoriak kontatzen ditu gaurko film honek.

Biharko pelikula, Bertha Gaztelumendiren *Ez eskerrik asko! Gladysen leioa*, izango da. Eta *Apaga la luz y veras* filma bi egunetan izango da, etzi eta ostiralean. Azken pelikula honekin emango zaio amaiera aurtengo Zinema Zikloari. **K**



'Paseko txoriak', filmeko eszena bat.

ZINEMA ZIKLOA

GAUR

19:30 Paseko txoriak

2018ko uztailean, Afrikatik zetozen etorkinak Irungo tren geltokira iristen hasi ziren, Frantziako muga zeharkatu nahian. Herritarrek haien aldeko eskuzabaltasun mugimendua sortu zuten, eta bertako harreman eta bizi-penak kontatzen dira gaur eskainiko den film honetan.

BIHAR

19:30, Ez eskerrik asko! Gladysen Leioa

1979an, nazioarteko mugimendu antinuklearrak hainbat mobilizazio antolatu zituen, horietako bat Tuteran, Gladys de Estal ekologista Guardia Zibil baten tiroz hil zen manifestazio baketsu batean. Gertaera hura ez ezik, gazte ekologistaren herioatzaren aurreko eta ondorengo gertakariak jasotzen ditu dokumentalak.

ETZI ETA OSTIRALEAN

19:30, Apaga la luz y veras

Ibon Casasen borrokaren lekuko da dokumental hau. Filmaren bidez, bere istorioa eta ikusmen gaitzak dituzten pertsonena kontatzen da, elkartzaren eta integrazioaren bestelako ikuspuntua, erakutsiz. Film hau, bi egunetan jarriko da, etzi eta azken saioa, ostiralean izango da. Ostiralekoarekin amaituko da aurtengo Zinema Zikloa.



Atzo, urteko lehen konzentrazioa egin zuten Pentsiodunek.

Zelaietak atzo egin zuen aurkezpena

HERNANI PENSIONISTAK

Astelehenero biltzeari ekin zioten atzo, pentsiodunek. Eguerdiko 12:00etan bildu ziren Plazan, beste behin. Horrekin batera,

«urtarrilaren 30erako Euskal Herriko gizarte-mugimendu eta sindikatu gehienek deitutako greba orokorra babestea erabaki» dutela jakinarazi dute,

eta harremanetarako helbide elektronikoa jarri dute eskura, iradokizunak egin edo ideiak partekatuzko: 2020mpeh@gmail.com.



Atzo, Ahoztar Zelaietak egindako liburu aurkezpenean.

Zelaietak atzo egin zuen aurkezpena

HERNANI LIBURU AURKEZPENA

Liburu berria aurkeztu zuen atzo Ahoztar Zelaietak: *El narco-oasis vasco. Capos del narcotráfico y mafias policiales*

con impunidad política. Euskal Herriko narkotrafikoarekin politikari eta bankuek daukaten harremanaz hitz egin zuen, hainbat istoriren artean.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



V. URTEURRENA

Jokin Izeta Pikabea

Maitasuna ez da inoiz hiltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.



Zure arrebak, ilobak eta iloba txikiak

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 14an

Urtea bukatu bezala hasi dute berria, Mundarrok eta Hernanik

Derbia jokatu zuten mutilen bi taldeek larunbatean, eta Hernanik irabazi zuen, 59-64. Mundarroko neskek 57-49 galdu zuten Axularren kontra.

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOA

Bizitasun haundiko derbia jokatu zuten Mundarro eta Hernaniko mutilen gorengo taldeek. Etxean aritzeak indartsu hasteko aukera eman zien astigartarrei, eta aurreneko laurdenean aurretik aritu ziren. Hernanik, ordea, argi zeukan borrokarako prest atera zela kantxara, eta bigarren laurdenean berak egin zituen tanto gehiago, markagailuan aurea hartuz.

Hirugarren eta laugarren laurdenetan ere dantzan jarri zuten markagailua, jokalariek. Berrito ere Mundarro aurreratu zen, hasieran. Baina azken laurdenean erabaki zen partidua, eta bost tantoko aldearekin, Herna-



Aurea hartu zuen Hernanik, azken laurdenean.

nik aurea hartu eta poltsikoratu egin zuen garaipena, 59 eta 64.

Horrela, urtea bukatu bezala hasi dute bi taldeek berria: garaipenarekin Hernanik, eta porrotarekin, Mundarrok. Bi taldeen arteko aldea, hala ere, ez da haundia, sailkapen oro-

korrean. Mundarrok 17 puntu dauzka, eta 12garren dijoa. Hernani, berriz, 9garren, baina puntu bakar bat gehiagorekin.

Neskei dagokionez, Mundarrok galdu egin du 57-49 Saski Axularren kontra, baina bosgarren postuari eusten dio. **K**

10 batel uretaratu ditu Hernanik, Ligan

Martutenen jokatu da Gipuzkoako Batel Ligako aurreneko estropada. Nesken 6 batel, eta mutilen 4 atera ditu Hernanik.

HERNANI ARRAUNA

Hasi dira lanean Hernaniko Arraun Elkarteko batelak. Gipuzkoako Batel Ligari eman diote hasiera asteburuan, Martutenen jokatu den estropadan, eta denera, 10 batel uretaratu ditu Hernanik.

Bateletako sei, neskek osatuak dira: haurren mailako bi, promesetako beste bi, eta absolutuetako beste bi; horietako bat mixtoa. Mutilenak, berriz, lau batel dira: infantiletako bat, kadeteetako beste bat eta jubeniletako bi.

Nuerria hartzen, aurreneko estropadan

Hasi besterik ez da egin Batel Liga, eta hernaniarrak ondo aritu dira. Aurreneko estropadak kokatzeko balio izan die, batel guztiei.

Emaitzarik onenak promesetako neskek izan dituzte. 18 batel ontziratu ziren, eta Hernaniko batek 4garren egin zuen, 07:23,80eko denborarekin. Beste ontziak, berriz, 13garren, 08:20,26eko denborarekin. Absolutuetan, berriz, aurreneko batela 4garren izan zen, 09:48,51ko denborarekin, eta talde mixtoa 7garren, azkena, 10:16,54 eginda. Neskekin bukatzeko, infantiletako bi batelak 8 eta 10garren postuan iritsi ziren helmugara, hurrenez hurren, 06:03,64 eta 06:23,53 denborekin.

Mutilei dagokionez, infantilek 5garren egin zuten 9 batelen artean, 05:31,63ko denborarekin. Kadeteak, berriz, 11garren izan ziren, 07:22,88 eginda. Eta jubenilek 13 eta 14garren egin zuten, 09:40,77 eta 09:59,27ko denborekin, hurrenez hurren.

Hurrena, otsailean

Aurreneko estropada eginda, tartea pasako da bigarrena jokatzerako: otsailaren 2an izango da, Pasai San Pedron. Dagoen mailari neurria hartzen jarraituko dute hernaniarrek, hurrengo estropadan ere. **K**

Emaitza bakoitzetik bana lortu dute, gorengo hiru taldeek

Hernaniko mutilak izan dira garaipena lortu dutenak, 2-1, Anaitasunaren kontra. Neskek, berriz, 1-0 galdu dute Erandioren aurrean. Mundarroko mutilek, bestalde, bana berdindu dute Rotetaren kontrako partidua.

ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Denetariko emaitzak izan dituzte Hernani eta Mundarroko gorengo hiru taldeek, asteburuan. Ohorezko erregional mailan, Hernanik irabazi egin du 2 eta 1 Anaitasunaren kontra. Euskal Ligan, berriz, galdu, 1 eta 0, Erandioren kontra. Mundarrok, bestalde, bana berdindu du Rotetaren aurrean, Gorengo mailan.

Aurreneko itzuliari amaiera mutilek; bigarrenari hasiera neskek

Hernani eta Mundarroko mutilen kasuan, Ligako aurreneko itzuliko azken partiduak jokatu dituzte.

Mundarrok Rotetari egin behar izan dio aurre. Lau postu gorago dijoa sailkapenean, 24 punturekin, eta Mundarro 11garren dijoa, 18rekin. Ez zen partidua erraza, beraz. Baina ondo aritu ziren etxeakoak. Hasieratik

nahiko itxia izan zen partidua, eta kosta egiten zen aukerak sortzea. Baina Mundarrok aurkariaren akats bat baliatu zuen markagailuan aurretik jartzeko. Minutu gutxira partiduko aukerarik garbienean huts egin bazuten ere, atsedendira aurretik iritsi ziren, beraz, etxeakoak.

Bigarren zatian ez zen jokoa gehiegi aldatu. Baina minutuek aurrera egin ahala aurkariaren nekea nabarmentzen hasi zen, eta Mundarrok espazio gehiago hartu zuen. Hala ere, ezin izan zuen bigarren gola satu, eta denbora gehigarrian, Rotetak berdindu egin zuen partidua.

Hurrengo partiduan Ligako bigarren itzuliari ekingo diote, eta Mundarrok Deustori egin behar dio aurre; hirugarren dijoa, eta Ligako aurreneko partiduan hark irabazi zien astigartarrei.

Hernanik, bestalde, txukun jokatu zuen Anaitasunaren aur-



Rotetaren aurrean bana berdinduta, hurrengo arierio gogorraren aurrean aritzeko kemena bildu du Mundarrok.

ka. Hernani baino bi postu gorago dago sailkapenean, bigarren, eta ez zen partidua erraza izan. Baina Hernani bera aurreratu zen markagailuan, partidua lehenean, eta urduritasun momentuak izan baziren ere, eutsi egin zion, garaipeneko hiru puntuak etxean geratzea lortu arte.

Hurrengo partiduan, Beti Gazteren aurka hasiko du Ligako bigarren itzulia. Hau postu bat gorago dago, hirugarren, bi puntu gehiagorekin. Baina Liga hasieran Hernanik irabazi zuen norgehiagoka, eta azken joko txukunari jarraipena ematen saiatuko dira berdeak.

Euskal Ligako neskei dagokionez, bigarren itzuliko aurreneko partidua jokatu zuten Erandioren kontra, eta 1 eta 0 galdu zuten. Sailkapenean 10garrena da Hernani, eta Erandio 3garren. Hurrena, Barakaldoren aurka aritu beharko dute; postu bat gorago dagoenaren kontra. **K**



Naya Mangas (eskuinetik hasita hirugarrena), Gipuzkoako Txapelketaren podiumean. Argazkia: Martin Early

Naya Mangas hirugarren, Gipuzkoako Txapelketan

Podiumera igo zen hernaniarra, neska juniorretan. 9garren izan zen Iker Iriando, mutil juniorretan; eta 11garren Tasio Semperena, kadeteetan.

ASTIGARRAGA-HERNANI TXIRRINDULARITZA

Igandean jokatu zituzten pistako txirrindularitzako Gipuzkoako Txapelketak, Donostian, Anoetako belodromoan. Eta podiumera igoztea lortu zuen Naya Mangas hernaniarrak. Hirugarren sailkatu zen neska juniorretan, proba guztietan maila ederrean aritu ondoren.

Mutil juniorren mailan, berriz, 9garren izan zen Iker Iriando hernaniarra. Eta mutil kadeteetan, azkenik, bailarako bost txirrindularietatik onenak izan ziren Tasio Semperena astigartarra eta Unax Urretabizkaia hernaniarra, 11garren eta 12garren sailkatuta.

Lau onenen artean Mangas, proba guztietan

Lau proba jokatu zituen Naya Mangasek, eta guztietan aritu zen onenen artean: aurreneko lau postuetan sailkatu zen guztietan, neska juniorrak eta kadeteak elkarrekin zirela. Hasteko, bigarren izan zen scratch proban; laugarren sailkatu zen gero, tempoan zein eliminazioan; eta beste bigarren postu batekin bukatu zuen txapelketa, puntuazioan.

Horrela, sailkapen nagusiko hirugarren izan zen, 120 punturekin, Arene Etxarri (127) eta Garazi Estevezen (125) atzetik.

Scratchean bigarren, Iriando Mutil juniorretan, ez zen sail-

kapen nagusiko onenen artean izan Iker Iriando, baina proba batean, sekulako emaitza lortu zuen: bigarren izan zen scratch proban. Gero, 12garren izan zen tempoan zein eliminazioan, eta 13garren puntuazioan, sailkapen nagusiko 9garren postuan bukatzeko txapelketa, 74 puntu pilatuta.

Maila horretan, Asier Pozo izan zen onena, 126 punturekin, Haritz Sein (116) eta Haimar Etxebarriaren (113) aurretik.

Aner Zilbetik bigarren postua, kadeteen tempoan

Mutil kadeteetan izan ziren Urumea bailarako partehartzailer gehien; guztira, bost txirrindulari: Tasio Semperena astigartarra; eta Aner Zilbeti, Ekhi Muñoz, Unax Urretabizkaia eta Markel Rodriguez hernaniarrak.

Lau proba jokatu behar izan zituzten haiek ere. Eta aurrenekoan, tempo proban, lortu zuen emaitzarik onena, Zilbeti: bigarren sailkatu zen hernaniarra, Beñat Garaiarren atzetik (Gipuzkoako txapelkun izango zena bukaeran). 11garren egin zuen Urretabizkaia, 14garren Muñozek, 18garren Semperena eta 27garren Rodriguezek.

Scratchean, berriz, Rodriguez izan zen onena, 9garren eginda, eta segidan sailkatu zen Semperena, 10garren. 17garren eta 18garren izan ziren Urretabizkaia eta Muñoz, eta 22garren Zilbeti. Ezin izan zuten bukarara arte iraun, eliminazio pro-

ban; eta 10garren eta 11garren izan ziren Semperena eta Urretabizkaia, hurrenez hurren. 17garren sailkatu zen Rodriguez, 19garren Muñoz, eta 26garren Zilbeti. Eta puntuazioan, azkenik, Urretabizkaia eta Muñoz izan ziren onenak, 9garren eta 10garren. 14garren egin zuen Zilbeti, 15garren Rodriguezek, eta 18garren Semperenak.

Emaitza guzti horiekin, Semperena izan zen sailkapen nagusiko aurrenekoa, 11garren postuan, 50 punturekin; eta puntu berberak eskuratuta izan zen 12garren Urretabizkaia. 14garren sailkatu zen Zilbeti, 40 punturekin; 16garren Rodriguez, 33 punturekin; eta 21garren Muñoz, 26 punturekin.

164 punturekin izan zen txapelkun Beñat Garaiar, Eneko Arozena (132) eta Daniel Fursencoren (102) aurretik.

Neska kadeteen eta 23 urtez azpikoen txapelketak ere jokatu ziren, bailarako partehartzailerik gabe; eta Amaia Astarloa eta Eukene Larrarte izan ziren onenak, hurrenez hurren.

Bio Racer Sariaren azkeneko jardunaldia, igandean

Beste zita garrantzitsu bat izango dute datorren asteburuan ere, pistako txirrindularitzan. Izan ere, Bio Racer Sariaren 9garren eta azkeneko jardunaldia jokatuko dute, igandean 09:45etan hasita, Donostian bertan.

Scratch eta puntuazio probak jokatuko dituzte neskek; eliminazio eta puntuazio probak mutil juniorrek; eta tempo eta puntuazio probak mutil kadeteek. Sariko hirugarren postua dauka jokoan, Naya Mangasek. **K**



Hernaniko jokalaririk bat botatzen, Egiaren kontrako partiduan.

Berdinketa etxean, Hernaniko neskek

19-19 bukatu zuten Hernaniko neska jubenilek, Egiaren kontra; eta Zumaian galdu, Mundarrokoek.

ASTIGARRAGA-HERNANI ESKUBALOIA

Etxean jokatu dituzte jardunaldi honetako partidu guztiak, Hernaniko eskubaloia taldeek; eta «asteburu ederra» izan dela nabarmendu du taldeak: «kiroldegiko harmailak gaztetxoak beteta egoteak, erakutsi du posible dela eskubaloiaz gozatzea».

Eta zaleen bultzada, bereziki neskek aprobetxatu zuten, oso emaitza onak lortzeko. Berdin egin zuten neska jubenilek, Egiaren kontra (19-19); eta garai-pena eskuratu infantilek, Irau-

liren kontra (26-16), eta kadeteek, Mutrikuren kontra (19-17). Neska infantilak, gainera, lider dira beraien multzoan, fase hau bukatzeko partidu bakarra falta zaienean.

Mutilen taldeen emaitzak, berriz, apalagoak izan ziren. Mutil jubenilek galdu egin zuten, Egiaren 3ren kontra, gutxi-gatik (33-36); eta porrota jaso zuten mutil kadeteen bi taldeek ere, Bidasoaren (29-32) eta Arrasateren (23-35) kontra. Infantil mailan, berriz, garaipen eta porrota bana.

Mundarroko galdu, Zumaian

Etxean ez, kanpoan aritu dira Mundarroko neska jubenilek, Zumaian; eta hirugarren porrota jaso zuten, Pulpo taldearen kontra (27-24). **K**

CD Hernani aurrena, Legazpiko tiraldian

Miguel Aizpurua eta Ibon Minerrek 46na brila bota zituzten, Taldekakoaren aurreneko saioan.

EREÑOTZU-HERNANI BOLA

Igandean hasi zen bola denboraldia, Taldekako Txapelketaren aurreneko tiraldiarekin, Legazpin. Eta ondo ekin diote, bailarako bolariak. Aurreneko postuan dago CD Hernani, 247 brila bota baitzituzten taldeko bolariak. Ategorrieta dago bigarren, 245 brilarekin.

Elur Txori, berriz, laugarren postuan dago, 231rekin; eta Ur-Mia bosgarren, 225ekin.

Miguel Aizpurua eta Ibon Miner, onenen pare

Hiru taldeetako kideen artean,

bereziki ondo aritu ziren Miguel Aizpurua hernaniarra eta Ibon Miner ereñotzuarra. 46na brila bota zituzten, eta laugarren eta bosgarren izan ziren, baina Iñaki Berasategi bigarrenarekin eta Jon Orekain hirugarrenarekin berdinduta. German Gereñok bota zituen gehien (47).

Iñaki Minerrek, berriz, 45 brila bota zituen.

Nesketan, Villabonako Behar Zana taldea dago aurreneko postuan, 157 brilarekin.

Finalera pasea jokoan, datorren igandean Añorgan

Taldekakoaren bigarren tiraldia, datorren igandean izango dute, Añorgan. Eta bertan botatuko brilak eta Legazpikoak batuta, jakingo dute zein talde pasako diren A multzotik, urtarilaren 25ean Olaberrian jokatuko den finalera. **K**

Lau hernaniarrek hobetu dituzte markak Gipuzkoako Kluben Kopan

Hernani taldeko Intza Pagola, Inge Zabala, Xabier Huitzi eta Fortunako Enaitz Goñi Irungo Azken Portun aritu dira A eta B mailetan.

HERNANI IGERIKETA

Asteburuan, bi egunetan, Gipuzkoako Kluben Kopa jokatu da Irungo Azken Portu igerilekuan eta bertan lau igerilari hernaniar aritu dira bi talde ordezkatzeko. Inge Zabala, Intza Pagola eta Xabier Huitzik, B mailan, Hernani igeriketa taldea ordezkatu dute eta Enaitz Goñik, A mailan, Fortuna taldea.

Lauek beraien markak hobetu dituzte ia proba guztietan.

Sailkapen orokorrean Hernani zazpigarren geratu zen B mailan eta Fortuna hirugarren A mailan.

Tolosaldeak irabazi du Kopa sailkapen bateratuan, baita nesken sailkapenean ere. Mutiletan Bidasoak lortu zuen garaipena. B mailan Zubiaurrek, nesketan, Ordiziak mutiletan eta bateratuan lortu zuten garaipena.

Markei dagokionez aipatzekoa da Enaitz Goñik bere lau probetan (50, 100, 200 bizkar eta

400 estiloetan) lortutako hobekuntza. Espainiako minimetarik oso gertu geratu da denetan. Orain bi aste Bizkaiako sarian egindako 4:54, 400 estiloetan, hiru segundotan hobetu zuen, 4:51.70 markarekin. Xabier Huitzik 50 tximeletan 30.70 denborekin marka ona egin zuen. 100 libretan (1:04.56) eta 100 eta 200 tximeletan ere aritu zen. Intza Pagola 50 eta 100 libre, 50 buitar eta 100 estiloetan aritu zen eta Inge Zabala; 100 libre, 100 estilo eta 50 bizkarren.

Larunbata honetan ere igeriketa txapelketak egongo dira igerilari benjamin eta alebinentzat. **K**



Hernani taldeko Intza Pagola, Inge Zabala eta Xabier Huitzi.

ERRUGBIA

MUT. OHOREZKO MAILA	Hernani-Ciencias	23-41
NSK. EUSKAL LIGA	Landarbaso-La Única	0-107
MUT. 23 URTEZ AZPIKOAK	Hernani-Ciencias	38-5
MUT. KADETEAK (SUB 18)	Gaztedi-Hernani	0-27
MUT. KADETEAK (SUB 16)	XV Des Gaves-Hernani	12-15
MUT. KADETEAK (SUB 16)	Gaztedi-Hernani	57-5
MUT. INFANTILAK (SUB 14)	La Única-Hernani	35-10

FUTBOLA

NSK. EUSKAL LIGA	Erandio-Hernani	1-0
MUT. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Anaitasuna	2-1
NSK. OHOREZKO ERREG.	Ostadar-Hernani	0-0
MUT. ERREG. PREF.	Mundarro-Roteta	1-1
MUT. ERREG. PREF.	Sanpedrotarra-Hernani	1-2
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Lengokoak-Mundarro	2-3
MUT. JUB. LIGA NAZ.	Hernani-Danok Bat B	1-3
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Real Union-Mundarro	0-1
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Santo Tomas Lizeoa-Hernani	3-2
MUT. JUB. 1GO MAILA	Mundarro-Lagun Onak	2-1
MUT. JUB. 1GO MAILA	Sporting Herrera-Hernani	1-3
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Zumaia-Hernani	0-1
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Mundarro-Oiartzun	2-1
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Real Union	0-1
MUT. KAD. 1GO MAILA	Urnieta B-Mundarro	2-2
MUT. KAD. 1GO MAILA	Intxurre-Hernani	0-7
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Oiartzun	3-0
MUT. INF. OHOR. MAILA	Beti Ona-Mundarro	1-1
MUT. INF. OHOR. MAILA	Oiartzun-Hernani	1-1
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Sporting Herrera	6-2
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Danena	3-3
MUT. INF. TXIKIAK	Hondarribi-Hernani	2-1

BOLEIBOLA

MUT. EUSKADIKO LIGA	Navarmutilak-Hernani	0-3
NSK. GIPUZKOAKO LIGA	Goierri S-Hernani	0-3
NSK. KADETEAK	Hernani 1-Fortuna 1	0-3
NSK. KADETEAK	Hernani 2-Lizardi	3-0
NSK. INFANTILAK	Laskorain-Hernani 1	1-3
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Lizardi	3-0

ESKUBALOIA

NSK. JUBENILAK	Pulpo-Mundarro	27-24
NSK. JUBENILAK	Hernani-Egia	19-19
MUT. JUBENILAK	Hernani-Egia 3	33-36
NSK. KADETEAK	Hernani-Mutriku	19-17
MUT. KADETEAK	Hernani-Bidasoa	29-32
MUT. KADETEAK	Hernani-Arrasate	23-35
NSK. INFANTILAK	Hernani-Irauli	26-16
MUT. INFANTILAK	Hernani-Ereintza	32-21
MUT. INFANTILAK	Hernani-Leizaran	15-24

SASKIBALOIA

MUT. GIPUZ. 1GO MAILA	Mundarro-Hernani	59-64
NSK. GIPUZ. 2. MAILA	Saski Axular-Mundarro	57-49
MUT. GIPUZ. 3. MAILA	Ostadar-Hernani	47-56
MUT. GIPUZ. 3. MAILA	Elorri Aldapa-Mundarro	51-63
NSK. JUNIORRAK	Mundarro-Aletico SS	15-54
MUT. KADETEAK	Bergara Soralue-Hernani	54-46
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Easo Arano	45-58
MUT. KADETEAK	Zast Orio-Mundarro 2	25-75
MUT. INFANTILAK	Larramendi-Hernani	67-28
MUT. INFANTILAK	Oiarso Haundi-Mundarro	64-23

ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Urrutia II-Zubiri/Barricart-Garces	35-29
2. PARTIDUA	Juanenea-Barrenetxea IV/Urriza-Agirrezabala	40-36

3. PARTIDUA	Seguroa-Ion/Matxin III-Azpiroz	30-40
4. PARTIDUA	Goikoetxea V-Larrañaga/Aldabe-Arruarte	30-16

PALA

NSK. NAGUSIAK	Oberena/Irazustabarrena-Arrieta	30-17
NSK. JUBENILAK	Mazizior-Urdangarin/Gure Pilota	13-15
NSK. JUBENILAK	Hernani 3/Hernani 2	24-30
NSK. JUBENILAKO	Zumaia/Hernani 1	30-20
NSK. KADETEAK	Iriondo-Barrenetxea-Kerejeta/Elorrio/Ataun	18-20/ 17-20

ESKU PELOTA

MUT. NAGUSIAK	Buruzgain/Ojuel-Labaka	22-9
MUT. INFANTILAK	Artola-Txintxurreta/Gazteleku	18-9
MUT. INFANTILAK	Iturbe-Elizazu/Gazteleku	12-18
MUT. INFANTILAK	Alberdi-Otaño/Añorga	14-18
MUT. INFANTILAK	Pascual-Azpeitia/Alde Zaharra	18-11
MUT. INFANTILAK	Moral-Urrutia/Alde Zaharra	15-18
MUT. ALEBINAK	Zestoa/Alberdi-Arretxe	11-16
MUT. NAG. TRINK.	Urnieta/Unai Alvarez	26-40
MUT. JUB. TRINK.	Oinatz Insausti/Behar Zana	16-35
MUT. JUB. TRINK.	Oiarpe/Mikel Lasa	35-8
MUT. KAD. TRINK.	Behar Zana/Mattin Arluziaga	29-30
MUT. KAD. TRINK.	Behar Zana/Unai Etxarri	30-22
ZANGOZAKO TXAP.	Xabier Apaolaza/Zugarralde	18-9
IRURITAKO TXAP.	Iturbe-Txintxurreta/Erreka	16-18
LESAKAKO TXAP.	Urtzi-Lasa/Erreka	15-18
IBAETAKO TXAP.	Zapiain-Etxarri/Goikoetxea-Ezama	22-15
IBAETAKO TXAP.	Artaraz-Aranburu/Jara-Sorondo	7-22
IBAETAKO TXAP.	Arizmendi-Zalakain/Ariztegi-Olano	12-22
ARETAKO TXAP.	Gorka-Lizeaga/Murua-Arbizu	14-22



Neska kadeteen taldeko jokalaririk bat, saka egiteko prest, larunbatean Hernaniko kiroldegian.

Garaipen erosoak etxetik kanpo, neska eta mutil seniorrek

Mutilak gehiago izan ziren Berriozarren, Navarmutilak taldearen kontra; eta neskek Goierri menderatu zuten, jokorik galdu gabe.

HERNANI BOLEIBOLA

Ondo hasi dute urte berria, Hernaniko boleibol taldeek; eta sei partidutik, bost irabazi dituzte, joan den asteburuan.

Berriozarren aritu zen mutil seniorren taldea, Navarmutilak taldearen kontra, Euskal Ligan. Eta desorekatua izan zen partidua, nabarmen gehiago izan baitziren hernaniarrak: hiru jokotan lortu zuten garaipena. 20-25 irabazi zuten aurrenekoa, eta erraz lortu zuten bigarrena, 10-25eko emaitzarekin. Hirugarrenean ere, ez zioten aukerarik eman, talde nafarrari, eta 14-25 irabazita, garaipen erraza ekarri zuten Hernanira, aurreneko itzulia bukatzeko. Denboraldi erdia jokatu, bosgarren postuan dago sailkatuta Hernani, Udapa Lankide laugarrenarekin berdinduta, sei garaipen eta hiru porrotarekin.

Gainera, aurreneko itzulian

partidu gehiago jokatu dituzte kanpoan, etxean baino. Hortaz, etxean dauzkate gehiago orain, bigarren itzulian, eta sailkapenean gora egitea izango dute helburu, liga bukatu bitartean. Eta honetan, soilik garaipen bat gehiagorekin daude Voleyvifia eta Navarvoley.

Irekieran bezala, Gipuzkoako Ligan ere nagusi neskak

Neska seniorrek, bere aldetik, hasiera eman zioten Gipuzkoako Ligari, behin Irekiera Txapelketa bukatuta. Eta aurreko hori porrotarik gabe bukatu bazuten, nagusitasunez ekin diote berriari ere: 0-3 irabazi zuten Urretxun, Goierriren kontra.

Baja dezente izan arren, ez zuten barkatu hernaniarrek, eta hasieratik izan ziren gehiago. 9-25 irabazi zuten aurreneko jokoan, 17-25 bigarrena, eta estuagoa izan zen hirugarrena, baina partidua ixtea lortu zu-

ten, 23-25 nagusituta. Oraingoan, denboraldi borobila daramakite neska seniorrek, jokotutako partidua guztiak irabazita.

Porrota bakarra, neska kadeteen talde batek

Gainerakoan ere, asteburu bikaina izan da Hernaniko taldeentzat. Neska infantiletan, bi taldeek lortu zuten garaipena. Tolosan jokatu zuten aurreneko urtekoek, Laskorain taldearen kontra; eta partidua gogorrean, 1-3 irabazi zuten: 24-26, 12-25, 25-14 eta 22-25. Errazago nagusitu zen infantilen beste taldea, bigarren urtekoena, Lizardiren kontra: 25-5, 25-20 eta 25-21.

Neska kadeteetan jaso zuen, taldeetako batek, asteburuko porrota bakarra. Aurreneko urtekoek ez zuten aukerarik izan, Fortuna 1 taldearen kontra, eta 0-3 galdu zuten etxean: 8-25, 18-25 eta 15-25. Alderantziz gertatu zitzaion bigarren urtekoen taldeari. Etxean aritu ziren haiek ere, Lizardiren kontra, eta erraz nagusitu ziren: 25-10, 25-9 eta 25-16. Denboraldi sendoari segida eman zioten horrela. **K**

Euskal Herriko Ligan, garaipena eta porrotak

Nagusietan Irazustabarrena eta Arrietak irabazi egin dute, eta jubenilek eta kadeteek galdu, estreinakoan.

HERNANI PALA-ERREMONTEA

Euskal Herriko Ligan estreinatu ziren neska nagusiak, jubenilek eta kadeteak, emaitza desberdinekin. Nagusietan, Iruñean jokatu zuten Amaia Irazustabarrena eta Ariane Arrietak, Obenaren kontra, eta garaipena lortu zuten (30-17). Jubenilek eta kadeteek ez zuten zorte berdina izan. Sistema berezia izango dute: ligaxka eta kanporaketak jokotuko dituzte, txapelketako jardunaldi bakoitzean.

Arabako Abetxukon jokotuko zuten Enara Mazizior eta Garazi Urdangarin jubenilek, Gure Pilotaren kontra, final laurdenetan, eta 15-13 galdu zuten. Maddi Iriondo, Alaitz Barrenetxea eta Ane Kerejeta kadeteek, berriz, Hernanin hasi zuten txapelketa, eta Elorrio eta Ataunen aurka 20-18 eta 20-17 galdu zituzten

jokotutako bi partidua. Hiru talde hauek ligaxka eta finala jokotuko dituzte.

Juaneneak eta Barrenetxeak Urrizaren bolada eten dute

Erremontean, Juaneneak eta Barrenetxeak Urrizaren bolada ona eten zuten larunbatean Galarretan. Iruñeako aurrelariak 2019 amaiera eta 2020 hasiera ezin hobek egin ditu, azken partidua denak irabazita, baina saldiastarrak eta hernaniarrak partidua ona jokatu eta Urriza eta Agirrezabalari 40-36 irabazi zieten.

Juaneneak partidua bikaina egin zuen, eta mendean hartu zuen Urriza. Barrenetxea sendo aritu zen atzean, nahiz eta ez egin bere partidurik onena. 23 tanto eta bi hutsegite bakarrik egin zituen Juaneneak. Urriza 17 tantotan eta 7 akatsetan geratu zen. Jokaldiak egiten saiatu zen, baina ez zuen asmatu.

Partidua berdinduta hasi zen hamaikana egin zuten arte. Orduan gorriek bost tantoren alde hartu zuten eta partidua osoan zehar mantendu zuten alde hori. **K**

Xabier Apaolaza, Zangozako finalera

18-9 irabazi du finalerdia, Maiza nafarraren kontra, eta aste honetan jokotuko du finala.

HERNANI ESKU PELOTA

Xabier Apaolaza pelotari jubenila Zangozako Txapelketako finalera sailkatu da, finalerdian 18-9 irabazi eta gero. Zugarralde taldeko Maiza nafarra zuen aurkari, eta ongi nagusitu zitzaion hernaniarra. Azken urte honetan bere maila asko igo du Apaolazak, eta horri esker emaitza hobek ari da lortzen. Finalerdi borobila jokatu zuen, eta aste honetan bertan izango du finala Zangozan.

Orokorrean, pelotari hernaniarren asteburuan, zortzi garaipen eta lau porrotarekin,

emaitzak ez dira oso onak izan, taldetik diotenez: «zapora gazi-gozoa utzi digute».

Trinketeko finaletara, Arluziaga eta Alvarez

Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, bost semifinal jokatu dituzte. Mattin Arluziaga finalera sailkatu da kadeteetan, Behar Zanako Aranbururi 30-29 irabazi eta gero. Partidu estua izan zen, eta azken tantoan erabaki zen dena. Maila bereko beste finalerdian, Unai Etxarrik galdu egin zuen Behar Zanako beste Aranbururen kontra 30-22.

Jubeniletan Oinatz Insaustik 35-16 galdu zuen, Behar Zanako Olasagastiren; kontra eta Mikel Lasak ere galdu (35-8), Oiarpeko Aranbururen aurka. Unai Alvarez seniorra, ordea, finalera sailkatu da, Urnietako Aldunberri 40-26 irabazita. **K**

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta katalana eskatzen dira. Lanaldi osoa.

Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EGURALDIA

GAUR



Zerua lainotuta egongo da tarteka, baina giro eguzkitzua izango da nagusi, oraindik. Hego-haizea indartu egingo da, eta oso bolada gogorak espero dira. Temperatura, berdintsu. **Min.7° / Max.16°**

BIHAR



Laino gehiago sartuko dira bihar, eta zerua estalita egongo da une batzuetan. Hegoaldeko haizea zakar ibiliko da egunaren hasieran, bereziki mendi inguruetan. **Min.9° / Max.16°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



Atzo Asanblada egin zuten Goiz Eguzkin, bertako zuzendaritza eta Udaleko kideekin.

«Pozez nago, ez baita itsasontzi hau ondoratuko»

Atzo izan zen Goiz Eguzkiren ez-ohiko batzarra, eta bertako areto nagusia jendez bete zen. Orain arteko buru usteak alde batera utzi zituzten, hainbat bolondres atera baitziren zuzendaritza berriari kolaboratzeko.

HERNANI GOIZ EGUZKI

47 urte daramatza Goiz Eguzkik martxan, eta azken 14 urtetan zuzendaritza berdinak eraman du egoitza. Horregatik, pasaden urriaren 21eko batzordean zuzendaritza osoak dimisioa aurkeztea erabaki zuen. «Ideia berriak dituen eta elkarteari bultzada sortzailea emango dion kide gazteak sartzea beharrezkoa da». Paco Goya zuzendaria, «nekatuta» dagoela adierazi du, eta atzo arte behintzat ez da bolondresik egon, «Goiz Eguzkiren etorkizuna eta existentzia bera daude jokoan».

Atzo egin zen ez-ohiko batzarrean, Goyak argi utzi zuen, zaharrak zeudela eta erreleboa behar zutela. Bertan zeuden Udaleko hainbat kide, eta haien artean zen Xabier Lertxundi alkatea, eta adierazi zuen, Udalak ezin diola pertsona juridiko bati eman dirua, elkarre batekin egon behar du Udalaren diru laguntza jasotzeko, hori dela eta, «Goiz Eguzkik zuzendaritza bat behar du». Elkarterik ez bada-

go, Udalak ezin du lagundu, «ez badago direktibarik, diru laguntza gabe geldituko litzateke Goiz Eguzki». Gaineratu du, Udala prest dagoela 2019an eman zen diru laguntza baino gehiago emateko aurrean, «baina horretarako beharrezkoa da zuzendaritza bat egotea».

«Geuk lagunduko dugu norbait aurkezten bada, zuzendaritza berriarekin kolaboratuko dugu, dena martxan jarri arte», gauzak hobetzeko eta aldatzeko prest daudela ere azaldu du Goyak. Gutxienez, bost bat pertsona behar dira zuzendaritza sortzeko, «bestela itxi egingo da».

Goyak galdera bat botatu zuen; Mapatik desagertzeko prest gauden? Bertako guztiek ezetz erantzun zuten. Eta ondoren beste galdera batekin jarraitu zuen; Zein dago prest Goiz Eguzkiko egoitzan kolaboratzeko? Eta hor hartu zuten denek lasaitua, zazpi bat pertsonak altsatu baizuten eskua. «Asko poztan naiz, honek jarraituko duelako» erantzun zuen Goyak, honakoa gaineratuz, «14 urte hauetan



Asko izan ziren atzoko Asanbladara gerturatu zirenak.

egin dugun lan guztia aurrera doa, eta hobera gainera!». «Pozez nago, ez baita itsasontzi hau ondoratuko, hasieran beldurtua nentorren, baina zuen erantzunarekin, honek aurrera egingo duela argi daukat».

Udalak ere, eskerrak eman ditu, «pozten gara Goiz Eguzkik etorkizuna duelako, zuzendaritza berri bat izango duela jakinda».

Udalaren arabera, zuzendaritza finkatu arte bilerak egin behar dira, beraz, datoren hilean emango da zuzendaritzari buruzko informazioa

gehiago. **K**

